



## 5/2018 INSTRUKZIOA, APIRILAREN 23KOA, OSAKIDETZAKO GIZA BALIABIDEEN ZUZENDARIARENA, 2017-2018 IKASTURTEKO UDAKO EUSKARA IKASTAROETARAKO DEIALDIA ARAUTZEKO PROZEDURA EZARTZEN DUENA

Instrukzio honen bidez 2017-2018 ikasturteari dagokion 2018ko udan euskara ikasteko eskabideak tramitatzeko eta langileak aukeratzeko prozedura ezartzen da. Hona hemen xede horretarako ematen diren

### JARRAIBIDEAK

#### Lehenengoa.- UDAKO EUSKARA IKASTAROEN ESKAINTZA

Ikastaro hauek 2018ko udan euskara ikasi nahi duten Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko langileei eskaintzen zaie.

Udako ikastaroen deialdi honetan eskaintzen den hizkuntza-prestakuntza IVAPEk finantzatuko du horretarako duen aurrekontuaren bidez. Aurrekontua nahikoa ez balitz IVAPEk Ogasun eta Herri Administrazio sailburuaren 2005eko azaroaren 30eko Aginduaren 3. artikuluan ezarritako irizpideak jarraituko ditu.

Ordu-kreditua agortuta izateagatik IVAPEk finantzatuko ez duen langileen hizkuntza-prestakuntza Osakidetza finantzatuko du horretarako duen aurrekontuaren bidez, betiere Osakidetzako Giza Baliabideen zuzendariaren martxoaren 12ko 2/2018 Jarraibideek ezarritako baldintzak betetzen badituzte.

#### Bigarrena.- NORK ESKA DEZAKE UDAKO IKASTAROA?

Udako ikastaro bat eskatu ahal izateko, aldezturik IVAPEko deialdien bidez ikastaroren bat egin izan behar du interesdunak eta, beraz, ikas-prozesua hasia.

Deialdian parte har dezakete Osakidetzako langileek, lan-harremana edozein izanda ere, betiere baldintza hauek betetzen badituzte:

- Zerbitzu aktiboan, senideak zaintzeko eszedentzian edo zerbitzu berezietan egotea 2017ko martxoaren 14tik 2018ko maiatzaren 9ra bitartean ( 2017-2018 ikasturteko deialdia arautu zuen 452/2017 Ebazpenaren egunetik 2018ko udako ikastaroetan parte hartzeko izen-emate eguna bukatu arte).

- Aldi baterako kontratatuen eta ordezkien kasuan, epe horretan guztira sei hilabetetik gora lan egin behar izan dute Osakidetzan.

Espezialitatea egiten ari diren mediku eta erizain egoiliarrek euskalduntze ikastaroak egin ahal izango dituzte, euren prestakuntza aldiaren urtea gorabehera.

#### Hirugarrena.- IKASTAROEN EZAUGARRIAK

Ikastaro guztiak lanorduetatik kanpokoak izango dira; beraz, langileak oporraldietan joango dira eskoletara.



Administrazioak ikastaroen matrikula ordainduko du. Barnetegia aukeratuz gero, eskolak, ostatua eta mantenua ere ordainduko ditu; alabaina, ez du bestelako gasturik ordainduko, hala nola, joan-etorriak eta materialak.

### 3.1.- Udako ikastaroek bete beharreko baldintzak

- Ikastaroak HABEk homologatuak izan behar dira.
- Euskaltegi publikoek edo pribatu homologatuek eman behar dituzte.
- Gutxienez 80 ordukoak izan behar dute.
- EZ da onartuko autoikaskuntza bidezko ikastarorik.
- Ez da 4HE prestatzeko ikastarorik eskaintzen.

Ikastaroa irailean egin nahi izanez gero, kontuan izan beharko da 2018-2019 ikasturteko ikastaroak noiz hasiko diren, iraileko ikastaroaren amaiera eta ikasturte berriaren hasiera nahas ez daitezela.

Normalean, euskaltegi bakoitzak bere eskaintza berezitua egiten du: egutegiak, iraupenak, ikasgelak, e.a. desberdinak izaten dira euskaltegi batetik bestera. Ikastaro batzuk euskaltegietan bertan ematen dira, eta beste batzuk, aldiz, bestelako etxe edo herrietan.

### Laugarrena.- ESKABIDEEN EPEAK, TRAMITAZIOA ETA JAKINARAZPENA

Langile bakoitzak, gehienez ere, hiru ikastaro egin ahal izango ditu eta ikastaro bakoitzeko eskaera bat egin beharko du.

#### 4.1.- Eskaerak egiteko epea eta prozedura

Udako ikastaroetarako eskabidea egiteko epea: 2018ko apirilaren 24tik maiatzaren 9ra bitartekoa, biak barne. Data horretatik aurrera zerbitzu-erakundeek ez dute eskabiderik onartuko.

Zerbitzu-erakundetako pertsonaleko zuzendaritzek eskabideak Osakidetza Giza Baliabideen Zuzendaritzari helarazteko azken eguna: 2018ko maiatzaren 21a. Epe hori igarota, ez da eskabiderik ez aldaketarik onartuko.

Giza Baliabideen Zuzendaritzak IVAPI baimendutako eskabideen berri emateko azken eguna: 2018ko ekainaren 1a.

Ikastaroetan parte hartu nahi dutenek eskabide elektronikoa bete beharko dute:

- [www.osakidetza.eus](http://www.osakidetza.eus) (Profesionalak > Euskara > Euskarazko prestakuntza > Euskalduntze ikastaroak > Udako ikastaroak > Eskaerak > Internetez)
- [www.osakidetza.euskadi.eus](http://www.osakidetza.euskadi.eus) (Profesionalak > Euskara > Udako ikastaroak > Eskaerak > Internetez).

Salbuespenez, zerbitzu-erakundeetako pertsonaleko zuzendaritzetan aurkeztu ahal izango dute izena emateko eskabidea. Horretarako, instrukzio honen I. eranskineko eskabide orria erabil daiteke.

#### 4.2.- Eskaerak tramitatzeke eta jakinarazteke modua

Zerbitzu-erakundeek paperean aurkeztutako eskabideak GIZABIDE-EUSKARA, prestakuntza moduluan, grabatu eta tratatu beharko dituzte. Internetez egindako eskabideei dagokienez, tratatu baino ez dira egin behar. Onartutako eta ukatutako eskabideen zerrenda Giza Baliabideen Zuzendaritzara bidaliko da, paperean aurkeztutako eskabideekin batera.

Baimendutako eskaerak IVAPera bidaltzeko epea igaro ondoren, Osakidetzako Giza Baliabideen zuzendaria, ebazpen baten bidez, baimendu eta baztertutako eskaeren behin-behineko zerrenda onartuko du. Baztertuen kasuan, baztertzearen arrazoa adieraziko da. Aipatutako ebazpena Osakidetzaren webgunean jarriko da jende aurrera baita zerbitzu-erakundeetan zabalkunde handiena duen hedabideetan ere (posta elektronikoa, intranet, iragarki-taula ...).

Behin-behineko zerrenda Osakidetzaren webgunean jende aurrean jarri eta hurrengo egunetik hasita, interesatuek 10 egun naturaleko epea izango dute erreklamazioak Osakidetzako Giza Baliabideen zuzendariari aurkezteko.

Erreklamazioak Osakidetzako edozein zerbitzu-erakundetako erregistroan aurkeztu ahal izango dira eta, halaber, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16. artikuluan jasotako edozein eratan.

Erreklamazioak aurkezteko epea igaro ondoren, Osakidetzako Giza Baliabideen zuzendariaren ebazpen bidez ebatziko dira. Ebazpen honek baimendutako eta baztertutako eskaeren behin betiko zerrenda jasoko du; baztertuen kasuan, baztertzearen arrazoa adieraziko da. Aipatutako ebazpena Osakidetzaren webgunean jarriko da jende aurrera baita zerbitzu-erakundeetan zabalkunde handiena duen hedabideetan ere (posta elektronikoa, intranet, iragarki-taula, ...).

Ebazpen honen aurka, gora jotzeko errekurtsioa aurkeztu ahal izango zaio Osakidetzako zuzendari nagusiar, hilabeteko epean, ebazpena Osakidetzaren web orrian jendaurrean jartzen den hurrengo egunetik kontatzen hasita.

## **Bosgarrena.- MATRIKULA ORRIAK. IKASTAROEI UKOAK ETA ESKOLA-UZTEAK TRAMITATZEKO ETA GIZA BALIABIDEEN ZUZENDARITZARI JAKINARAZTEKO PROZEDURA**

### **5.1.- Matrikula orriak**

- Baldintzak betetzen ez dituzten eskaerak ukatu egingo ditu IVAPek, eta Osakidetzako Giza Baliabideen Zuzendaritzari ukapenaren berri emango dio, honek zerbitzu-erakundeetako zuzendaritzari jakinarazteko.
- Baldintzak betetzen dituzten eskaeren kasuan, aldiz, IVAPek langileentzako matrikula orriak bidaliko ditu Osakidetzako Giza Baliabideen Zuzendaritzara. Eta honek, zerbitzu-erakundeen pertsonaleko zuzendaritzetara bidaliko ditu, baimendutako langileek beraiek aukeratutako euskaltegi homologatura eraman eta era honetan matrikula egin dezaten.
- Langileek konpromisoa hartzen dute dagokion matrikula orria jasotzeko eta erabiltzen ez badute itzultzeko. Matrikula orria ez itzultzea edo ez jasotzea nahikoa izango da hurrengo deialdian langilearen eskabidea ezesteko.
- Langileak ikastaroa ez egitea erabakitzen badu, bere zerbitzu-erakundeko pertsonaleko zuzendaritzari jakinarazi beharko dio berehala, betiere 2018ko irailaren 28a baino lehen. Horretarako, "Ikastaroari uko egiteko inprimakia" izeneko agiria behar bezala bete eta bere zerbitzu-erakundeko pertsonaleko zuzendaritzan aurkeztu beharko du.
- Era berean, ikastaroa hasi eta langileak ikastaroa uzten badu, eskola uztea jakinarazi beharko dio bere pertsonaleko zuzendaritzari ahalik eta arinen. Horretarako, "Eskola-uztea jakinarazteko inprimakia" izeneko agiria behar bezala bete eta pertsonaleko zuzendaritzan erregistratu beharko du.
- Uko egiteko eta eskola uztea jakinarazteko inprimakia zerbitzu-erakundeetako pertsonaleko zuzendaritzetan egongo dira eskura, bai eta Osakidetzaren webgunean ere:

- [www.osakidetza.eus](http://www.osakidetza.eus) (Profesionalak > Euskara > Euskarazko prestakuntza > Euskalduntze ikastaroak > Udako ikastaroak > Deialdiari buruzko agiriak > "Ikastaroari uko egiteko inprimakia" eta "Eskola uztea jakinarazteko inprimakia")

- [www.osakidetza.euskadi.eus](http://www.osakidetza.euskadi.eus) (Profesionalak > Euskara > Udako ikastaroak > Ikastaroei buruzko informazioa > "Ikastaroari uko egiteko inprimakia" eta "Eskola-uztea jakinarazteko inprimakia")

2017-2018 ikasturteko udako ikastaroak arautu zituen 2/2017 Jarraibideek ezartzen zutena betetzeko, baztertuak izango dira 2017ko udako deialdian matrikula orria jaso ez edo itzuli ez zuten eskatzaileen eskaerak.

## **5.2.- Ikastaroei ukoak eta eskola-uzteak tramitatzeko eta Giza Baliabideen Zuzendaritzari jakinarazteko prozedura**

### **• Ikastaroari uko egiteak**

Zerbitzu-erakundeetako pertsonaleko zuzendaritzek langileek aurkeztutako uko-jakinazpenak eta erabili ez diren matrikula orriak langileek aurkeztu ahala bidaliko dituzte Osakidetzako Giza Baliabideen Zuzendaritzara. Ukoak eta matrikula orriak ukoen laburpen-zerrenda batekin batera bidali beharko dira.

Langileek jaso ez dituzten matrikula-orriak eta ikastaroei egindako ukoak eta dagozkion jakinarazpen-inprimakiak Osakidetzako Giza Baliabideen Zuzendaritzara bidaliko dira 2018ko urriaren 20rako. Giza Baliabideen Zuzendaritzak ez ditu onartuko data horretatik aurrera jasotako ukoak.

### **• Eskola uzteak**

#### **a) Eskola-uzteak erregistratzea**

Zerbitzu-erakundeek langileek uko-jakinazpena aurkeztu duen egun berean erregistratuko du erakundearen erregistroan inprimakia.

IVAPek diruz lagundutako ikastaroak direnean oso garrantzitsua izango da inprimakia zerbitzu-erakundearen pertsonaleko zuzendaritzan lehenbailehen erregistratzea. Izan ere, eskola-uztearen data inprimakia langilearen zerbitzu-erakundearen erregistroan sartu den eguna izango da eta IVAPek egun hori hartuko du ordu-kredituaren kontaketa eteteko.

Osakidetzak diruz lagundutako ikastaroa egiteko baimena duten langileen uko-jakinazpenak ere erregistratuko dira.

#### **b) Osakidetzako Giza Baliabideen Zuzendaritzari jakinaraztea**

IVAPek ordaindutako ikastaroen kasuan, zerbitzu-erakundeetako pertsonaleko zuzendaritzek eskola uzteei dagokien dokumentazioa bidaliko dute zuzenean IVAPera egun berean, IVAPek dagokienei horren berri eman diezaien. Halaber, Osakidetzako Euskera Zerbitzu Korporatiboari eskola uztearen berri emango diote.

Osakidetzak ordaindutako ikastaroen kasuan, zerbitzu-erakundeetako pertsonaleko zuzendaritzek eskola uzteei dagokien dokumentazioa Osakidetzako Giza Baliabideen Zuzendaritzara bidaliko dute.

**Seigarrena.- MATRIKULAREN ORDAINKETA**

IVAPek ikastaroen matrikula ordainduko du. Barnetegia aukeratuz gero, eskolak, ostatua eta mantenua ere ordainduko ditu; alabaina, ez du bestelako gasturik ordainduko, hala nola, joan-etorriak eta materialak.

Ordu-kreditua agortuta izateagatik IVAPek ordainduko ez dituen eskaerak Osakidetzak finantzatuko ditu horretarako duen aurrekontuaren bidez, betiere Osakidetza Giza Baliabideen zuzendariaren martxoaren 12ko 2/2018 Jarraibideek ezarritako baldintzak betetzen badituzte.

**Zazpigarrena .- ORDU-KREDITUA UDAKO IKASTAROETAN**

Deialdi honetara biltzen diren eskariek ordu-kredituaren sistema izango dute ezarrita, Ogasun eta Herri Administrazio sailburuaren 2005eko azaroaren 30eko Aginduari jarraiki.

Agindu horren 6. artikulua arabera, euskara ikastaroa hasi ahal izateko, beharrezkoa izango da ikasleek ikasturtearen hasieran ordu-kredituan aldeko saldoa izatea.


Gauzak horrela, IVAPek ordu-kredituaren kontrola modu honetan aplikatuko du udako ikastaroetan:

- 2017-2018 ikasturtea urrian hasi zuten ikasleei ikasturtea hasi aurretik aplikatu zitzaizen ordu-kredituaren kontrola; beraz, udako deialdian ez zaie berriro aplikatuko. Ondorioz, ikasturtea urrian hasi zuten ikasleek udako deialdian parte hartu ahal izango dute nahiz eta udako eskaera egiten dutenean ordu-kreditua negatiboa izan. Edozelan ere, udako ikastaroetan emandako orduak ordu-kreditutik kenduko dira, ikasturtean zehar emandako gainerakoak bezalaxe.

- 2017-2018 ikasturtea otsailean hasi zuten ikasleei otsaileko ikastaroa hasi baino lehen aplikatu zitzaizen ordu-kredituaren kontrola; beraz, udako deialdian ez zaie berriro aplikatuko. Ondorioz, ikasturtea otsailean hasi zuten ikasleek udako deialdian parte hartu ahal izango dute nahiz eta udako eskaera egiten dutenean ordu-kreditua negatiboa izan. Edozelan ere, udako ikastaroetan emandako orduak ordu-kreditutik kenduko dira, ikasturtean zehar emandako gainerakoak bezalaxe.

- Azkenik, 2017-2018 ikasturtea 2018ko udan hasiko duten ikasleei eskaera egin orduko aplikatuko zaie ordu-kredituaren kontrola, eta saldo negatiboa dutenak ezin izango dira eskolan hasi. Hau da, ikasle horiek udako ikastaroa egin ahal izateko, aldeko saldoa izan beharko dute; bestela, IVAPek bazter utziko du eskaera. Aurreko kasuetan bezala, udako ikastaroetan emandako orduak ordu-kreditutik kenduko zaizkie.

Vitoria-Gasteiz, 2018ko apirilaren 23a



Juan Carlos Soto Pérez  
GIZA BALIABIDEETAKO ZUZENDARIA  
DIRECTOR DE RECURSOS HUMANOS

Iz.: Juan Carlos Soto Pérez

**OSAKIDETZAKO GIZA BALIABIDEEN ZUZENDARIA**

**ESKATZAILEA**  
**SOLICITANTE**
**OHARRA**  
**ATENCIÓN**

Datu guztiak egoki bete behar dira eskaera ontzat emateko.  
 Izen-abizenak nortasun agirian dauden bezala idatzl.  
 Para que se acepte la solicitud deben cumplimentarse todos los datos.  
 Escribir nombre y apellidos tal como aparecen en el DNI.

NAN DNI	<input type="text"/>	Perts. Zk. Nº personal	<input type="text"/>
Abizenak Apellidos	<input type="text"/>		
Izena Nombre	<input type="text"/>		
Zerbitzu-erakundea Organización de servicios	<input type="text"/>		
Lan-harremana Relación laboral	<input type="checkbox"/> Behin betikoa Fijo	<input type="checkbox"/> Bitartekoa Interino	<input type="checkbox"/> Aldi-baterakoa Temporal

**ESKATUTAKO IKASTAROA**  
**CURSO SOLICITADO**

 (gehienez ere 3 ikastaro eskatu ahal dituzu)  
 (puede solicitar como máximo 3 cursos)

**LEHEN IKASTAROA / PRIMER CURSO**

EUSKALTEGIA	<input type="text"/>	ZENBAT ORDU EGUNEAN Nº HORAS AL DÍA	<input type="text"/>
HERRIA POBLACIÓN	<input type="text"/>	HASIERA-EGUNA DÍA DE INICIO	<input type="text"/>
ORDUTEGIA HORARIO	<input type="text"/>	AMAIERA EGUNA DÍA DE FINALIZACIÓN	<input type="text"/>
IKASTAROAREN IRAUPENA: ikastaroaren iraupenari gehien hurbiltzen zaion ordu kopurua adierazi DURACION DEL CURSO: elija el nº de horas que más se aproxime al curso que se desea realizar			
<input type="checkbox"/> 80-90 ordu <input type="checkbox"/> 115 ordu <input type="checkbox"/> 130 ordu			

**BIGARREN IKASTAROA / SEGUNGO CURSO**

EUSKALTEGIA	<input type="text"/>	ZENBAT ORDU EGUNEAN Nº HORAS AL DÍA	<input type="text"/>
HERRIA POBLACIÓN	<input type="text"/>	HASIERA-EGUNA DÍA DE INICIO	<input type="text"/>
ORDUTEGIA HORARIO	<input type="text"/>	AMAIERA EGUNA DÍA DE FINALIZACIÓN	<input type="text"/>
IKASTAROAREN IRAUPENA: ikastaroaren iraupenari gehien hurbiltzen zaion ordu kopurua adierazi DURACION DEL CURSO: elija el nº de horas que más se aproxime al curso que se desea realizar			
<input type="checkbox"/> 80-90 ordu <input type="checkbox"/> 115 ordu <input type="checkbox"/> 130 ordu			

**HIRUGARREN IKASTAROA / TERCER CURSO**

EUSKALTEGIA	<input type="text"/>	ZENBAT ORDU EGUNEAN Nº HORAS AL DÍA	<input type="text"/>
HERRIA POBLACIÓN	<input type="text"/>	HASIERA-EGUNA DÍA DE INICIO	<input type="text"/>
ORDUTEGIA HORARIO	<input type="text"/>	AMAIERA EGUNA DÍA DE FINALIZACIÓN	<input type="text"/>
IKASTAROAREN IRAUPENA: ikastaroaren iraupenari gehien hurbiltzen zaion ordu kopurua adierazi DURACION DEL CURSO: elija el nº de horas que más se aproxime al curso que se desea realizar			
<input type="checkbox"/> 80-90 ordu <input type="checkbox"/> 115 ordu <input type="checkbox"/> 130 ordu			

Honen bidez jakinarazten dizugu eskabide honetan ematen den informazio guztia "Giza Ballabideen Xudeaketa Integratua" izeneko fitxategian sartuko dela. Fitxategi horren arduraduna Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Giza Ballabideen Zuzendaritza da eta helburua da Osakidetzako langileen kudeaketa, barneko estatistikak taxutzeko lanabes modura erabiltzea eta administrazio prozedurak izapidetzeko datu-base izatea. Halaber, jakinarazten dizugu eskabide honetako datuak Eusko Jaurialtzaren Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailerri lagako zalakia, euskara ikastaroak kudeatu ahal izateko. Fitxategi horren erabilera eta funtzionamendua lege hauetan araututakoaren arabera egongo da: Datu Pertsonalak Babesteko 1999ko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan eta Titularitate Publikoko Datu Pertsonalak Babesteko eta Datuak Babesteko Euskal Agentzia sortzen duen 2004ko otsailaren 25eko 2/2004 Legea. De acuerdo con lo establecido en la Ley Orgánica 15/1999, de 13 de diciembre de Protección de Datos de carácter Personal y de la Ley 2/2004, de 25 de febrero, de Ficheros de Datos de Carácter Personal de Titularidad Pública y de Creación de la Agencia Vasca de Protección de Datos, le informamos que los datos personales facilitada mediante el presente formulario, se incluyen en el fichero tratamiento de datos denominado "Gestión Integrada de Recursos Humanos" cuyo responsable es la Dirección de Recursos Humanos de Osakidetza-Servicio vasco de salud. La finalidad del tratamiento es la gestión de personal de Osakidetza, la utilización como herramienta en la confección de estadísticas internas y como base de datos para la tramitación de procedimientos administrativos. Asimismo, le informamos que los datos recogidos en este formulario serán cedidos al Departamento de Gobernanza Pública y Autogobierno del Gobierno Vasco, para la gestión de los cursos de euskera.

Baimena ematen dut eskaera honetan jasotako datuak tratatzeko eta dagokien lagatzeko, goiko paragrafoan alpatutako helburuetarako. Autorizo el tratamiento y la cesión de los datos personales recogidos en este formulario en relación con las finalidades citadas en el anterior párrafo.

Fitxategiko datuetara sartzeko, datuak zuzendu, ezetzatzeko, eta horien aurka egiteko eta indarrean dagoen legeak onartzen dituen beste edozein eskubide erabili nahi izanez gero, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Giza Ballabideen Zuzendaritzara jo dezakezu: Araba kalea 45, 01006, Vitoria-Gasteiz. Para ejercitar sus derechos de acceso, rectificación, cancelación y oposición de dichos datos o cualquier otro derecho que la normativa vigente pudiera reconocer, puede dirigirse a la Dirección de Recursos Humanos de Osakidetza: Araba kalea 45, 01006, Vitoria-Gasteiz.

ESKATZAILEAREN SINADURA FIRMA DE QUIEN SOLICITA	ZERBITZU-ERAKUNDEAREN O.E. eta ZIGILUA Vº Bº y DE SELLO DE LA ORGANIZACIÓN DE SERVICIOS
DATA / FECHA	DATA / FECHA